

NAZIOARTEKO DIALEKTOLOGIA BILTZARRA

1. Sarrera

Euskal dialektologiak azken aldion izan duen loraldi bikainaren adierazgarri dugu Bilbon, Euskaltzaindiak eraturik, urriaren 21etik 25era, ospatu den *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra*, Louis Lucien BONAPARTE printzearen heriotzaren mendeurrenaren karietara.

Euskal dialektologiaren loratze honetan kokatzen da Euskaltzaindia burutzen ari den *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)*. Jadanik urte batzuk lanean eman ostean orain arte eman dituztenurratsak jendeurrean agertarazi nahi izan dituzte, eztabaida-objektua izan dadin.

Testuinguru honen inguruan sortu zen dialektologiari buruzko biltzarraren ideia. Ideia hori errealitate bihurtzeko saiakuntzan metodologiari ekitea erabaki zen, edozein ekintza burutzeko behar beharrezkoa delako ustearekin.

Dialektologian materialaren bilketa eta azterketa egokienez eztabaidatzeko elkargune bat proposatzea izan zen asraoa, solasgune bat hemengo eta kanpoko adituen artean ausnarketa emankorra sort zedin, oinarri zientifikoak sendotu eta euskal dialektologia jantziago atera zedin egokiera izateko.

Aste osoko egitarau trinkoan, Europa osoko ikerlariak izan diragurekin: EuskalHerrikounibertsitateezberdinetatik, Bordele, Toulouse, Paris-Sorbonne, Brest, Grenoble, Aix-Marseille, Bartzelona, Florentzia, Bamberg, Kolonia, Salzburg, Essex (Erresuma Batua), Madriletik (CSIC)...

Hizlarien artean, Europako proiektu zientifiko nagusien arduradunak izan dira Bilbon: M. Alinei, (ALE) Atlas Linguarum Europae-ren lehendakaria; J. Le Du, Frantziako hizkuntz atlasen arduraduna; H. Goebel, Europan burutzen ari den lehen hizkuntz atlas entzungarria egiten ari dena; M. Contini, Erromaniako hizkuntz atlasaren (ALIR) arduraduna; Galizia, Katalunian eta Penintsulako beste hizkuntz atlasen buruak, e.a.

Dialektologiaren atal garrantzitsua betetzen ari den dialektometria disziplinen egungo ikerlari nagusia: H. Goebels gorago aipatua. Datu-base dialektaletan diharduen M.J. Dalbera-Stefanaggi...

Euskal Herritik ondoko hauek izan dira: J.A. Arana (Euskaltzaindia), K. Rotaetxe (EHU), X. Falcon (Deustua-EUTG), Tx. Peillen (Euskaltzaindia), Benat Oyharribal (Euskaltzaindia), G. Aurrekoetxea (EHHA-Euskaltzaindia), R. M. Pagola (Deustua), J.A. Letamendia, Tx. Sagazazu, J.B. Orpustan (Bordele), X. Videgain (EHHA-Euskaltzaindia), J.M. Etxebarria (Deustua-EUTG), P. Salaberri (NHU), F. Leizaola (Aranzadi), X. Erize eta J. M. Etxebarria (Deustua).

2. Biltzarraren guneak

Entzun diren hitzaldiak honako gune ezberdin hauetan bana genitzake:

- 2.1. Hizkuntzalaritza orokorra eta dialektologia.
- 2.2. Dialektoen muga eta areak.
- 2.3. Hizkuntz atlasgintza: metodologia ezberdinak eta informatizapena.

2.4. Ahozkoasuna eta herri jakintza.

2.5- Datu dialektologikoen azterketa interdisziplinarioa,

2.6. Soziolinguistika eta dialektologia.

Ikus dezagun, bada, gune bakoitza:

2.1.-Hizkuntzalaritza orokorra eta dialektologia

Gai honen inguruan izan dira *G. Rebuschi* (Paris III) «Du role des variations dialectales dans l'elaboration des theories linguistiques», *K. Rotaetxe* (UPV-EHU) «Hizkuntz sistema eta dialektologia», *K. Rotaetxe* (UPV-EHU) «Hizkuntz sistema eta dialektologia», *X. Falcon* (Deustu-EUTG) «Dialektologia eta linguistika teoriak», *J. Ph. Dalbera* (Nice) «Dialectologie et morpho-phonologie» eta *X. Videgain* (EHA-Euskaltzaindia) «Lexiko bilketaren baldintza zorbait».

X. Falcon-ek historian zehar teoria linguistiko ezberdinetan dialektologiak izan duen tokia eta harremanak aztertu ditu. Eskola bakoitzak hizkuntza-dialektoa bereizketarako eman duen argitasuna agerian utzi du.

*K. Rotaetxe*ek bi ardatzetan zehaztu du bere hitzaldia: hizkuntzalaritzak dialektologiari eskatzen dizkion baldintzak eta dialektologiak hizkuntzalaritzari eskaini ahal dion informazioa.

G. Rebuschi-k hizkuntzetan aldagai eta aldaezina denaren arteko dialektikaz ihardun du, bi ikuspuntutatik begiraturaz: makroaldaketa ikuspegitik, hizkuntz tipologiak elaboraturaz fonologia, morfologia eta sintaxiaren arabera. Mikro-aldaketak, h. d. hizkuntza berak geografiaren arabera dituen forma ezberdinak.

J. Ph. Dalbera generatibismotik ikertzen du dialektologia-, arau (morfo)fonologikoen araberako azterketa proposaturaz.

X. Videgain lexikoari buruzko inkesta bat burutu behar denean kontutan izan behar diren arazo eta baldintzei buruz mintzatu zen: lexiaren aldaketak, kategoria gramatikala, zehaztasun semantikoa, fraseologia, etnografia,...

2.2. Bialektoen niuga eta areak

Bi hitzaldi gailentzen dira sail honetan:/. *Allieres* (Toulouse) «La place de la variation synchronique ponctuelle dans les monographies dialectales et la geolinguistique» eta/ *Veny-rena* (Bartzelona) «Areas y fronteras dialectales». Batetik hizkuntzaren parametro ezberdinetan aldakortasuna neurtzeko saioez aritu dira, bestetik hizkuntz-dialektoen arteko makro eta mikromugak dira aztergai. Isoglosen kontzeptu eta hierarkiak...

2.3= Hizkiuitz atlasgintza

Azpisail bi izan ditu gai honek:

2.3.1. Atlasgintzarako metodologia ezberdinak.

Hizkuntz atlasgintzaren sarrera zabala *M. Gonzdlez-ek* (Santiago) «Metodologia de los atlas linguisticos de España» ianarekin eman du. *M. Contini-k* (Grenoble III) «L'atlas Linguistique Roman-ALIR» gaia jorratu zuen, zertan den eta dituen ezaugarri zientifikoak agerian utziz. *Francisco Fernandezitez* (Santiago) «El Atlas Linguistico Galego. I Morfologia Verbal», berrikitan argitaratu duten I alearen aurkezpenaz arduratu zen; *R. M. Pagola* (Deustua) «Maila fonetikoak hizkuntz atlasgintzan», hizkuntz atlasgintzan arlo honek izan duen pisua eta tratamendua ikertu zuen.

2.3.2. Hizkuntz atlasen informatizapena.

Aide teorikoa *J. L. Fossat-en* eskutik etorri zen (Toulouse) "Contribution a la modelisation du fait d'ordre dialectal" delako hitzaldi mamitsuarekin. Ondoren proiektu konkretuen azalpena: *J. Le Du* (Brest) «L'informatisation des atlas linguistiques de la France*», *G. Aurrekoetxea* (EHHA-Euskaltzaindia) «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren informatizapena» eta *H. Goebel* (Salzburg) «L'atlas linguistique parlant». Informatizapenaren kontzeptu eta burutzapen ezberdinak une honetan zeregin hau eskuartean duten dialektologarien artean. Lehena deskriptiboa gehienik. Azken biak sistema eta aplikazioaren erakusketa teknologia berrien laguntzaz baliatuz.

Kad-dje he.

N AZIOARTEKO 'III DIALEKTOLOGIA "=%

tsionara,

(XXNGRKSQ JKTivRNAC JK JNAJL i)K DIALKCTC>MKJfa Hajdu.
C.tiKCrifZS IN'I'KRNational HE I)JAI,EeTOLI Kill- "88!....."SSL"

EIJ SKALTZAIN DIA

1991. X. 21/25

»Jr~-Z

ionJTMBI

QTVS HAI
H«e ,2Z

KULTURA

Euskal Herriko HizkuntzAtlasan dagokionez Euskal Herriko eta Europako dialektologari prestuenen aurreko aurkezpen zientifikoa izan dela esango genuke.

Tartetxo berezi bat egin behar zaio H. Goebel-en hitzaldiari, iraultza bezala hartu behar delako geolinguistikan bere ekarpena. Orain arte inork ia amestu ere egin ez zuena berak puntako teknologia erabiliz magnetofonoz jasotako datuak entzuteko eran jartzen dim eskuartean darabilen proiektuan.

Hizkuntz atlasekin lotura hertsia duen dialektometria disziplinaz H. Goebel mintzatu zen «L'importance de la dialectologie pour la géolinguistique d'aujourd'hui et de demain» gaiarekin. Guztiz interesgarria hitzaldi hau ere dialektologian eman den azken urratsa baita datuak tratatzeko sisteman, metodologia kuantitatiboak ezarriz.

2.4. Ahozkotasuna eta herri jakintza.

M.J. Dalbera-Stefanaggi-k (Corse) eman zuen ahozkotasunaren balio eta garrantziari buruzko hitzaldia izenburutzat «La dialectologie et les dimensions de roralité» zuen lanarekin.

M. Contini (Grenoble III), «Pour une géoprosodie», arduratu zen ahozko dokumentuen prosodia aztertzeke beharrizan eta metodologiaz. Arras interesgarria hizkeran azentua eta intonazioak duten garrantziaz ohartzeko.

Etnografiaz J. N. Pelen (Marseille) irakasleak «La recherche sur les ethnotextes: réflexions sur un cheminement» gaia jorratu zuen.

2.5. Datu dialektalen azterketa interdisziplinarioa.

M. Alinei (Florentzia) «Dialectologie, anthropologie culturelle, archéologie; une démarche interdisciplinaire» ekarpenarekin zientzia horien arteko elkar-laguntzaz *Atlas Linguarum Europaeren* datuak aztertu zituen. Berritzaio behar da ikuspuntu hau gure artean. Aurrerantzean hizkuntzen egoera arkaikoak aztertzeke era berriak izango dira.

2.6. Soziolinguistika eta dialektologia.

Bi hitzaldi eman ziren gai honen inguruan: P. Trudgill (Essex) «Dialect typology and linguistic change*» eta P. Garcia Mouton (CSIC) «El Atlas Lingüístico y Etnográfico de Andalucía: hombres y mujeres. Campo y ciudad», hain zuzen ere. Aldaketa geografikoaz gain badira beste faktore batzuk: sexos, maila soziala... hizkuntza aldaketa eragiten dutenak; faktore horiek izan dira erabili dituztenak beren ikerketagai bezala.

3. Biltzarraren ostean

Irakaspen ederrak entzun izan dira bost egun horietan Euskaltzaindiaren egoitzean. Ozenki esan behar da izan den goi mailaz kanpo punta puntako berrikuntzak entzun eta ikusi ahal izan direla, orain arte gure disziplinan entzungabeak izan direnak. Arrakastatsua izan dela guztiz esan behar da, beraz.

Historikoki euskal dialektologiak bizi izan duen isolamendua apurtzen lagunduko du. Bertatik kanpoko ezagutza handiagoa lortu delako. Kanpotik hemen egiten den lanaren berri zehatzagoa izan dutelako. Hortaz eragin zuzena izango, du euskal dialektologigintzan.

Hala ere bidea ekinez egiten dela dio at-sotitzat, eta..guk geuk ere hala egin beharko dugu geurea.

Geure ordua da orain, gure artean, ahal denik eta fruitu gehien ateratzen iharduteko.

Etorkizun aberats eta oparoa izahg'6 duela euskal dialektologiak itxaroten dugu. Ba dugu zer egin, non jorra! uzta ederra izan dezagula!

G. Aurrekoetxea